



ELGETAN, URIBURU 1 ALDEAN 4 ETXEBIZITZA TASATU ESLEITZEKO BALDINTZA-AGIRIA

1. artikulua – Helburua eta ezarpen-esparrua.

Baldintza-agiri honen helburua, Elgetan, Uriburu aldeko 1. arloan, IRUALDEBAT SL.-ek eraiki eta Elgeta 21 S.L. elkarte publikoak kudeatzen dituen 4 etxebizitza tasatu esleitzeko araubide juridikoa zehaztea da.

2. artikulua – Etxebizitzen ezaugarriak.

2 motatakoak dira 4 etxebizitzak:

- a) 4 Motako 2 etxebizitza, proiektuaren arabera 2 logela eta 60,57 m² erabilgarri dituztenak.
- b) 5 Motako 2 etxebizitza, proiektuaren arabera 2 logela eta 70,26 m² erabilgarri dituztenak, duplex erakoak.

Etxebizitza bakoitzak aparkaleku-plaza bat eta trasteleku bat du; garajeak irekiak dira eta 2,30 x 4,80 m dute, gutxi gora behera, eta trastelekuak, berriz, 7 eta 9 m² artekoak dira.

3. artikulua – Etxebizitza eskuratzeko betekizunak.

3.1. Pertsona fisikoak edo elkarbizitza unitateak ondoren zehazten diren baldintzak bete beharko ditu etxebizitza hauetariko bat eskuratu ahal izateko.

Baldintza-agiri honen arabera, honako hau ulertuko da elkarbizitza-unitateak: Pertsona batek edo gehiagok osatzen dutena, ezkontzaren edo ezkontzaren antzeko era batez elkartuta daudenak, edo eta adopzio bidez, edo odol-loturen bidez 3. gradura arte, eta adopzioaren edo 3. maila arteko odol-loturen bidez, edo 2. maila arteko ezkontza-ahaidetasunaren bidez. Alde batera utziko da adiskidetasunak eta komenientziak eragindako elkarbizitza.

Etxea eskuratu ahal izateko, jabeak izan beharko dute elkarbizitza-unitateko kideek ondoren zerrendatzen diren:

- Ezkontutakoetan edo ezkontzaren antzeko beste harreman motetan, oraingo zein gerokoetan: senar-emazteak edo bikotekide biak.
- 3. maila arteko odol-loturen bidez, eta 2. maila arteko ezkontza-ahaidetasunaren bidez (esate baterako, anai-arrebak, osaba-izebak, ilobak, koinatu-koinatak, etab) osatutako oraingo edo geroko elkarbizitza unitateetan: senitasun horren bitartez lotutako pertsona guztiak, adin nagusikoak badira, beti ere.



3.2 Ondorengoak dira egiaztatu beharreko betekizunak:

1. ADIN-NAGUSITASUNA

Adinez nagusi izatea edo norbere kontura bizitzea.

2. ETXEBIZITZARIK EZ IZATEA

Elkarbizitza-unitateko guztiak etxebizitzarik eduki gabeak izango dira jabetzan, edo jabetza soilean, edo azalera-eskubiderik edo usufrukturik, sustapen honen Eraikuntza Baimena eman aurretiko 10 urteetan. Egoera honetan jarraitu beharko da salerosketa hau eskritura publikoa bihurtu arte.

Hala ere, Prezio Tasatuko etxebizitza eskura dezakete, beste etxebizitza baten jabe izanik, ondorengo baldintza hauetako baten barruan daudela froga dezaketenak agiriaren bidez:

1. Zeharoko hondamen egoeran deklaraturako etxebizitza baldin bada, eta botatzea erabakita badago.
2. Etxebizitza hori desjabetze-txostenen bateko ondasunen behin-betiko zerrendan sartuta badago.
3. Herentzia onartzen eta likidatzen den kasuan, heredaturiko etxebizitza baten edo batzuen jabetzan jabekide bada, besterentze kasuan ere bai, oinordeko jabekideak ondorengo baldintzak betetzen baditu:

- Jabekidetasun portzentaiak ezingo dira %50 baino handiagoak izan.
- Herentzia-multzoaren barruan, bere etxebizitza parteak ezingo du balio 72.000 euro baino gehiago, tasaketaren txostenaren arabera.

Trataera berdina emango zaio jabekidetasun horren jatorria gurasoek seme-alabei egindako donazioen bidezkoa bada.

3. BIZITOKIA

Agiri hau onartu baino lehenagoko bost urteetan etenik gabe Elgetan erroldatua egotea eskatuko da; nahikoa izango da jabegaietariko batek betetzea baldintza hau.

Nolanahi ere, eta edozein motibogatik azkenean ez balego bizitokiaren baldintza betetzen duen nahikoa eskatzaile zozketatuko diren etxebizitza guztientzat, beste eskatzaile guztiak barnean hartuko lituzkeen beste talde bat egingo da.

4. DIRU-SARRERAK

Gutxieneko eta gehienezko diru-sarrera haztatuak:



- a) Bi pertsona edo gehiagoko elkarbizitza-unitateek beren urteko sarrerak 33.100 eurotik gorakoak ez direla frogatu beharko dute. Pertsona bakarreko elkarbizitza-unitateak beren urteko sarrerak 24.000 eurotik gorakoak ez direla frogatu beharko dute. Edozein modutan, 42.972 37 € arte zabaldu daiteke muga hau 2 pertsona edo gehiagoko elkarbizitza-unitateentzat eta 30.000 € arte pertsona bakarreko elkarbizitza-unitateentzat, baldin eta etxebizitzarik geratzen bada esleitu gabe, bai Elgetan gutxienez 5 urtez errolatuta dauden pertsonentzat (bigarren esleipen taldean sartuko lirateke), bai baldintza hau betetzen ez dutenentzat (laugarren esleipen-taldean geratuko dira azken hauek).
- b) Ez da gutxienerako diru-sarrerarik eskatuko.

Diru-sarreraren jatorria:

Gutxienerako edo/eta gehienezko diru-sarreraren baldintza betetzat jotzeko diru-sarreraren %90 lan-etekinetatik edo/eta jarduera ekonomiko, profesional eta artistikoetatik, edo/eta beketatik, edo/eta errenta sozialetatik (oinarrizko errenta) etorritako diru-sarrera izatea eskatuko da.

Kontuan hartu beharreko diru-sarrerak:

a) Dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren edo aitortpenen zerga-oinarria hartuko da aintzat. Hala ere, lan-etekinen kasuan aintzat hartuko den zenbatekoa zerga-oinarriari etekin horien hobariak gehituz lortutakoa izango da.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden irabazietatik datozen diru-sarrera haztatuak zehazteko, kontuan hartuko dira ondorengo hauek:

- Lan-etekinetan eta langabezia-prestazioetan kontzeptu guztiengatik egiaztatutako diru-sarrera gordinen %95a hartuko da Oinarri Zergagarri gisa.

-Pentsioetan eta langabezia-subsidioetan, kontzeptu guztiengatik egiaztatutako diru-sarrera gordinen 100eko 100 hartuko da Oinarri Zergagarri gisa.

c) Bananduei, dibortzietuei eta alargunei dagozkien diru-sarrerak zehazteko, egiaztatu beharreko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena edo aitortpenak, edo egoki bada, diru-sarrerak, senar-emazte horiek elkarrekin zeuden garai batekoak baldin badira, ondorengo irizpideak beteko dira:

– Senar-emazteen erregimen ekonomikoa foru-komunikazioa edo irabazizkoa baldin bada, senar-emazteen diru-sarreraren %50a hartuko da kontuan.

– Erregimen ekonomikoa ondasun-banaketazkoa baldin bada, eskatzailearengandik datozen diru-sarrerak bakarrik hartuko dira kontuan.

d) Garaiz kanpo aurkeztu diren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko aitortpenak behar bezala egiaztatu gabeko diru-sarreratzat hartuko dira, eta baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenean jasota egon behar zuten baina jasota ez dauden diru-sarreraren egiaztapenak ere, baldin eta diru-sarrera horien aitortpen edo egiaztapenak eskatzaileei ahalbidetzen badiete diru-sarreraren baldintza hori betetzen dutela egiaztatzea.

Kontuan hartu behar diren diru-sarrera jasotzaileak:

Kontuan hartu beharreko diru-sarreraren jasotzailetzat hartuko dira Prezio Tasatuko etxebizitzaren jabeak diren elkarbizitza-unitateko pertsona guztiak.



Kontuan hartu beharreko epealdia:

Azken zergaldian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egiteko epea amaitu eta Eraikuntza Baimena eman aurretiko egunaren artekoa (2007ko PFEZ edo ordezkoa)

Diru-sarreraren haztapena:

a) Haztatu beharreko elementuak:

- 2007ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpeneko zerga-oinarria, artikuluko honetako 24. atalean adierazitakoaren arabera zuzenduta.
- Etxebizitza horretan biziko diren elkarbizitza-unitateko kideen kopurua. Ez dira onartuko adiskidetasuna eta komenientzia bizikidetzako arrazoitzat.
- Diru-sarrerak sortzen dituzten elkarbizitza-unitateko kideen kopurua, diru-sarreraren %20 gutxienez ekartzen dutenena, alegia.

b) Aurreko zenbakian aipatutako diru-sarreraren haztapena ondorengo formularen arabera egingo da:
 $DH = ZO \times K \times E$; hots:

DH: Diru-sarrera haztatuen zenbatekoa.

ZO: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren zerga-oinarriaren zenbatekoa, artikuluko honetako 3.2.4 atalean adierazitakoaren arabera.

K: Bizikidetzako unitateko kideen kopuruaren arabera haztatzeko koefizientea.

E: Gutxienez diru-sarrera gordinen %20 ematen duten bizikidetzako unitateko kideen kopuruaren arabera haztatzeko koefizientea.

c) K eta E haztatzeko koefizienteak, urteko diru-sarrera haztatuak zehazteko aplikatzen direnak, honakoak izango dira:

K:

- 1 edo 2 kide. 1,00
- 3 kide. 0,95
- 4 kide. 0,90
- 5 kide. 0,80
- 6 kide. 0,70
- 7 kide. 0,60
- 7 baino gehiago 0,50

E:

- 1 hartzaile 1,00
- 2 hartzaile 0,95
- 3 hartzaile edo gehiago 0,90

Diru-sarreraren haztapenak ez du ekarriko, inola ere, aipatutako haztapen horren ondorioz gutxieneko diru-sarreretara iristen ez diren hartzaileak baztertzea.



Laguntzarik ez jasotzea:

Babes ofizialeko, publikoko zein pribatuko beste etxebizitza baten esleipenduna ez izatea, eraikuntza honetarako Baimena eman aurretiko 10 urteetan. Bazter geratzen dira arau honetatik Babes Ofizialeko edo Sustapen Publikoko edo Pribatuko etxebizitza baten esleipendunak izan arren, uko zehatza egin ziotenak lehen aipaturiko epealdian.

Egoera horretan jarraitu beharko da salerosketa hau eskritura publikoaren mailara jaso arte.

4.4. Beste betebeharrak: Salerosketaren eskriturak egin eta gauzatzea.

3. maila arteko albo-lerroko odol-loturen bidez eta 2. maila arteko ezkontza-ahaidetasunen bidez osatutako elkarbizitza-unitateak izanez gero, eta irabazizko ezkontza-erregimenean ezkonduz dauden kideak izanez gero, jabeak izan behar dutenek salerosketaren edo alokairuaren kontratua zati berdina hartzen dituztela, eskrituratu eta gauzatu beharko dute.

Ondasunen banaketa-erregimenean ezkonduz dauden kideek eta izatezko bikoteetako kideek ez dute salerosketaren edo alokairuaren kontratua ehuneko berean eskrituratzeko eta gauzatzeko obligatorik; nahi duten portzioan eskrituratu eta gauzatu ahal izango dute kontratua.

Esleipen prozedura.

Aurretiko atalean aipaturiko etxebizitzaren bat eskuratu nahi duen pertsonak Elgeta 21, S.L-ren Erregistroan eman beharko du izena, 2008ko urriaren 3tik urriaren 20ra arte, biak barne; ez dira onartuko beste entitateen batean gauzatzen diren eskaerak, Etxebide-ren zerrendetan, adibidez.

5. artikulua –Sarrera eta erabilera erregimena.

5.1.- Jabetza-erregimenean eskuratu eta erabiliko dira etxebizitzak.

5.2.- Baldintza-agiri honetan ezarriko dira etxebizitzaren erabilera arauak.

5.3.- Etxebizitzak ohiko bizileku iraunkorrak izango dira eskuratzen dituztenentzat.

5.4.- Etxebizitzak ezingo dira alokatu, ezta prekarioan ere, baldin eta Elgeta 21, S.L-k ez badu baimen zehatza ematen.

Ezetzta ulertu behar da baldin eta eskaera egin eta hiru hilabetera ez bada baimen zehatza eman.

5.5.- Prezio Tasatuko etxebizitzaren legeko erregimenak 10 urte iraungo du.

5.6.- Obra Berriaren Aitorpena eta etxebizitza bakoitzaren eta guztien Jabetza Horizontalaren osaketa egiterakoan, Eroslehentasun eta Erretratu Eskubidea ezarriko da Elgetak Udaletxearen alde, ondoren zehazten den bezala arautuko dena.



Etxebizitza Tasatuekin espekulatzea ebitatu eta Salmenta prezioa kontrolatu nahirik, etxebizitza horiek desjabetzen badira, Elgetako Udalak Eroslehentasun eta Erretrato eskubidea erabiliko du, etxebizitza lehen aldiz eskuratu eta hurrengo hamar urtean. Eskubide hori ondorengo eran arautuko da nagusiki:

- ❑ Etxebizitza eskuratu duenak etxebizitza hori beste batzuen eskutara pasatu nahi badu, Elgetako Udalari jakinarazi beharko dio, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Arruntaren Araudi Juridikoaren Legeak zehazten duen edozein modu erabiliz.
- ❑ Elgetako Udalak erantzun egin beharko dio eskatzaileari hilabeteko epean, etxebizitza erosten diola esanez edo eskuratu dezakeena izendatuz, onartutako zerrendaren arabera, edo eta zerrendarik ez balitz, etxebizitza tasatuak eskuratzeko baldintzak betetzen dituen eroslegai bat bilatuz, beti ere publizitate, lehia eta berdintasun irizpideak errespetatuz.
- ❑ Edozein kasutan, eskuz aldatzen den etxebizitzaren prezioa erosketa prezioaren berdina izango da, gehi Kontsumo Prezioen Indizeak izan duen aldaketa, Estatistika Institutu Nazionalaren edo honen ordezkoko Erakundearen arabera.
- ❑ Etxejaberen batek ezarritako prozedura errespetatu gabe besteren eskutara pasatu balu beren etxebizitza, hots, Elgetako Udala Lehenetsi gabe, Administrazio honek Erretraktu eskubidea erabil dezake, eskualdatze horren berri izan eta hiru hilabeteko epearen barruan, eta horrela ezean, Jabetza-erregistroan inskribatuta gero, erosle gisa subrogatuz, salerosketa hori bere gain hartuz eta, edozein kasutan, eskualdatzearen preziotzat aurreko puntuan seinaturikoa ordainduz.

Lehen aipatu diren baldintzak agerian azalduko dira Prezio Tasatuko etxebizitzaren salerosketaren eskritura publikoetan, eta Jabetza-erregistroan inskribatu beharko dira.

6. artikulua -Sustapen-mota.

Etxebizitzaren sustapena pribatua da, IRUALDEABAT S.L.-rena, hain zuzen, esleipena Elgeta 21, S.L.-ren esku egongo den arren.

7. artikulua –Etxebizitzaren prezioak.

- 4 Motako 2 etxebizitzaren prezioak, proiektuaren arabera 2 logela eta 60,57 m² erabilgarri dituztenenak, 143.579,90 € izango da batarena eta 144.844,32 € besteara, trastelekua eta garajearekin, BEZa barne.
- 5 Motako 2 etxebizitzaren prezioa, proiektuaren arabera 2 logela eta 70,26 m² erabilgarri dituztenenak, duplex eraokak, berdina izango da biezat, 162.467,92 €, trastelekua eta garajearekin, BEZa barne.

IRUALDEABAT S.L. merkataritza-taldeak horrela eskuratuko du eskuz aldatzen diren ondasun higiezinaren azken prezioa



- ❑ %20 salerosketa kontratua sinatzen denean; etxebizitza zozketa egin eta hurrengo hamar egunetan gauzatuko da sinatze hori.
- ❑ Gaietiko %80 etxebizitza entregatzen den momentuan, eskualdatze edo salerosketari dagokion eskritura publikoa eginez, zozketa egin eta hurrengo hilabetearen barruan.

II. ATALA: ETXEBIZITZAK ESLEITZEKO PROZEDURA

8. artikulua – Izena emateko epearen hasiera.

Interesatuta dauden pertsona guztiak beren eskaerak aurkeztu ahal izateko, Elgeta 21 S.L.-ek izena emateko epea zabalduko du 2008 urriaren 3an eta urriaren 20an amaituko da.

9. Artikulua –Eskaerak.

10.1.- Eskaerak 8. artikulua zehazten den epean aurkeztu beharko dira, Elgetako Udaletxean luzatuko den eredu ofizialean, Elgeta 21 S.L.-ren bulegoetan, kasu bakoitzean eskatzen den dokumentazioarekin batera.

Ez dira onartuko izen-emate epea pasatuta gero aurkeztutako eskaerak; eskatzaile hauek interesatuak baleude geroago egingo diren beste deialdi batzuetarako, eskaera berria aurkeztu beharko dute hartarako ezartzen den epealdian.

Etxebizitzak zozketaz izendatuko dira, Elgeta 21 S.L.-ren erregistroan izena emandakoen artean, epe barruan emandakoak badira eta baldintzak betetzen badituzte, beti ere.

10.2.- Seme-alaben jaiotzak, ezkontzak, banaketak, dibortzioak edo heriotzak gertatzen badira eskaera eginda gero, jakinarazi egin behar zaizkio gorabehera guztiak Elgeta 21 S.L.-ri, eskaera aldatu ahal izateko.

10.3.- Eskaera bakarra onartuko da pertsonako edo elkarbizitza-unitate bakoitzeko. Erregistroan izena emandako pertsona batek, dela eskatzaile gisa edo elkarbizitza-unitate bateko kide gisa, berriz izena eman nahi badu elkarbizitza-unitate ezberdin bateko kide gisa, azkenekoz aurkeztutako eskaeraren arabera geratuko da erregistratua; honen berri emango zaio hasierako elkarbizitza-elkarteari.

10.4.- Izen-emate epea amaituta gero, ondorengo kasuetan bakarrik onartuko dira aldaketak elkarbizitza-unitateetan:

- a) Seme-alaben jaiotzak, ezkontzak berriak, legezko banaketa edo dibortzio berriak, eta heriotzak gertatzen direnean. Pertsona interesatuak jakinarazi eta gero, aztertu egin beharko dira elkarbizitza-unitate berriari dagozkion baldintzak, eskaera onartzeko edo atzera botatzeko orduan.
- b) Bestelakoetan, aldaketa horien ondorioz bestela baztertuta geratuko liratekeen eskaerak onartuta ez badira gertatzen. Aldaketaren emaitza baldin bada elkarbizitza-unitate berrian sartu nahi dela beste eskaera batean ere eskatzaile titularra den norbait, sustapen honen aukeraketa prozesuan sartuta dagoena, alegia, ez da halako aldaketarik onartuko, nahiz eta eraginik ez izan onartu-ez onartu egoeran.



Nolanahi ere, dagokion zozketa egin aurretik aztertuko dira aurreko bi ataletan aurreikusitako onorioz gertatzen diren egoera-aldaketak.

Elkarbizitza-elkartea aldatzeak eskaera oso-osorik aldatu beharra ekarriko du berekin.

10.5.- Erabaki bat hartu ahal izateko adina datu eskaintzen ez duten eskaerak, ez badira horretarako ematen den epealdian zuzentzen, artxibatu egingo dira, Elgeta Sl.-ren Administrazio Kontseiluaren erabakiz.

10. artikulua -Zuzenketak.

Izena emateko epea bukatzen denean, eskaerak aztertu ondoren, Elgetako Udaleko iragarki-taulan argitaratuko da zuzenketen beharra duten eskaeren zerrenda. Zuzendu beharreko atalak edo falta diren agiriak seinalatuko dira, eta bost eguneko epea emango da aipaturiko zuzenketak egiteko.

11 artikulua –Onartuen eta ez onartuen zerrenda.

12.1.- Elgeta 21, S.L.-ren Administrazio Kontseiluak, izen-emate epea bukatu baino lehen aurkeztutako eskaerak aztertu, behar diren zuzenketak egin eta egoki iriztitako egiaztapenak gauzatu ondoren, onartuen eta ez onartuen zerrendak erabakiko ditu.

Zerrenda hauek Elgetako Udaletxeko iragarki-taulan ipiniko dira 5 laneguneko epealdian. Behar bezala jakinaraziko da zerrendak onartzen eta argitaratzen direnean.

12.2.- Onartuen eta ez onartuen zerrendek datu hauek izango dituzte:

- a) Eskatzaile titularren izen-abizenak eta NAN-a.
- b) Elkarbizitza-unitateko kideen kopurua.
- c) Elgeta 21, S.L.-n galdetu beharko da zuzenean zeintzuk izan diren ez onartua izateko arrazoiak.

12. artikulua – Etxebizitzen zozketa.

13.1.- Helegiteak erabaki ondoren, zozketa egingo da etxeak eskuratuko dituzten pertsonak hautatzeko, kupo edo maila bakoitzaren barruan.

13.2.- Gero, Elgeta 21, S.L.-ren Administrazio Kontseiluak zozketaren arabera aukeratutako zerrenda onartuko du. Zerrenda horiek Elgetako Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.

Ondoren, Elgeta 21, S.L.-k etxebizitzak izendatuko dizkiete aukeratuen zerrendako kideei. Zozketa publikoaren bidez egingo da izendapen hori, zozketatu ahala zuzenean esleituko zaio etxebizitza bakoitza esleipendun bakoitzari (1tik 4ra zenbakituz), geroago etxebizitzen beste zozketa bat egin behar ez izateko.

Lau partetan egingo da zozketa: lehenengoan lehen taldeko kideak sartuko dira (5 urte baino gehiago Elgetan erroldatuta daudenak, eta hasieran ezarritako baldintza ekonomikoak betetzen dituztenak). Gero, bigarren taldekoak sartuko lirateke (5 urte baino gehiago Elgetan erroldatuta daudenak, eta 42.972,37 €-ko gehienezko diru sarrerekin 2 pertsona edo gehiagoko elkarbizitza-unitateentzat eta 30.000 €-koekin pertsona



bakarreko elkarbizitza-unitateentzat). Azkenik, Elgetan 5 urtez erroldatuta egotearen baldintza betetzen ez dutenak sartuko lirateke hirugarren eta laugarren taldekoak, beren diru sarreren arabera.

13. artikulua – Esleipena gauzatzea.

14.1.- Beharrezko egiaztapenak egin ondoren, ofizialki jakinaraziko zaio aukeraturiko bakoitzari zein etxebizitza egokitu zaion. 10 eguneko epea emango zaie salerosketa kontratu pribatua egin ahal izateko enpresa sustatzailearekin.

Etxebizitza Tasatua eskuratu duten pertsonen zerrenda argitaratzen denean, eta 30 eguneko epean, IRUALDEABAT S.L. merkataritza taldeak Prezio Tasatuko Etxebizitzaren eta haren erantsien salerosketaren eskritura publikoa sinatuko du.

Kontratuarekin batera, etxea eskuratu duenak horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen dituela adierazten duen dokumentazioa aurkeztuko du.

Eskatutako baldintzak ez dituela betetzen frogatuko balitz, ez luke izango kontratua sinatzerik eta Etxebizitzan sartzerik, eta ezta eskritura publikoa gauzatzerik eta Jabetza-erregistroan inskribatzerik.

Eskuratzaileraren batek baja emango balu, IRUALDEABAT S.L. merkataritza-taldeak honen berri emango dio Elgetako Udalari edo Elgeta 21, SL-ri 15 laneguneko epean, jakinaraziz behin-betiko esleipena zerrendako hurrengoarekin egingo dela; Udalbatzak luzatu behar dio zerrenda hori eginkizun horretarako.

14.2.- Eskriturak ez badira egiten horretarako izendatutako epean, eroslearekin zerikusia duten arrazoiengatik, izendatutako etxebizitzari uko egiten zaiola ulertuko da, eta Elgeta S.L.-k eskubidea izango du libre geratu den etxebizitzarentzat beste eroslegai bat izendatzeko, dagokion itxaron-zerrendari jarraituz

14.3.- Eroslearen gain joango dira eskritura, notaritza eta erregistro gastuak.

14.4.- Eskriturak egin eta hiru hilabeteko epean okupatu beharko da etxebizitza.

14. artikulua – Zalantzak eta interpretazioak.

Elgeta 21, S.L.-ren Administrazio Kontseilua izango da edozein artikulua interpretatzerakoan sor daitezken zalantzak argitzeko gaitasuna duen organoa.

Izena emateko lehen egunaren eta etxeen zozketaren egunaren bitartean norbaitek uko egingo balio egokitu zaion etxebizitzari, zozketatu egingo lirateke, baldintza-agiri honetan zehazten diren irizpideak zorrotz betez.

Ezingo da honen kontra Administrazio-errekurtsorik edo Auzirik jarri.

Elgetan, 2008ko urriaren 2an.